

HOTEL  
AIRE  
DE  
BARDENAS

ZOZKETA



## Tolosako adinekoen egoitzetan eta eguneko zentroan negatibo eman dute egoiliarrek eta langileek

Tolosaldeko Ataria 2020-07-15 17:48



Gipuzkoako Foru Aldundiak neurriak areagotu ditu Tolosa, Getaria eta Zarauzko adinekoen egoitza eta eguneko zentroetan. Hala, adinekoen egoitzetan irteerak etetea erabaki dute, eta eguneko zentroak aldi baterako ixtea erabaki dute.

Maite Peña Gizarte Politikako diputatuak jakitera eman duenez, Gipuzkoako Foru Aldundiak Tolosako, Getariako eta Zarauzko adinekoen egoitzetako eta eguneko zentroetako talde arduradunekin koordinatuta, neurriak areagotu dituzte. Tolosako lurreamendi eta Uzturre adinekoen zentroetan irteerak aldi baterako etengo dituzte, eta Uzturre eguneko zentroa ere itxi egingo dute aldi baterako. Tolosako zentroz gain, Zarauzko Santa Ana egoitzan eta Getariako eguneko zentroan ere neurri berdinak iragarri dituzte. Bisitei dagokienez, diputatuak esan duenez, "prebentzio eta segurtasun neurri guztiak zorrotz" egin ahal izango dira.

Diputatuak gogorarazi duenez, lurreamendi egoitzan, pasa den astelehenean, uztailak 6, irteerak etenda daude, "bertan bizi baitira orain Ordiziako San Jose egoitzako erabiltzaile asko, birmoldaketa lanak egiten ari direlako han". Tolosako eta Zarauzko zentroetan etenaldiak "egoera epidemiologikoak ahalbidetzen duenera arte" luzatuko direla azaldu du.

Diputatuak gehitu duenez, "Goierriko eta Tolosako egoitzetan ez dago COVID-19rik", erabiltzaileei eta zentroetako langileei PCR probak egin ondoren. DYArekin lankidetzan, 940 PCR proba egin dituztela uztailaren 7an hasita adierazi dute aldunditik, "Osasun Sailak Ordizian atzemandako COVID-19 agerraldia ezagutu ostean". Egindako proba guztiek emaitza negatiboa eman dute. Probak Beasaingo Arangoitin, Lazkaoko Txindokin, Segurako San Juanen, Zumarragako Argixaon, Legazpiko Santikutzen, eta Tolosako lurreamendin eta Uzturren egin dituzte. Datorren astean, gauza bera egingo dutela Zarauzko egoitzan baieztatu dute.

Maite Peñak gogorarazi duenez, "detekzioan eta erantzunean azkartasuna ezinbestekoak dira birusaren hedapenari aurre egiteko", eta, gaineratu duenez, "neurrien helburua da birusaren eraginean aurrean ahulenak diren pertsonen ongizatea zaintzen jarraitzea, ikusezina dena, azkar transmititzen dena eta oso gogorra adineko pertsonen artean". Halaber, diputatuak azpimarratu duenez, "osasun arloko agintariekin harremanetan jarraituko dugu eta Gipuzkoa osoko egoerari adi, neurri gehigarriak hartzeko edota oraingoak egokitzeko".

[Osasuna Tolosa](#)